

EGOITZA ELEKTRONIKOKO KOMUNIKAZIOAK

ERAKUNDEENTZAKO INFORMAZIO-OHARRA, ERAKUNDEEI ETA LANGILE-KUDEATZAILEARI ALTA EMATEKO ESKABIDEI ETA DATUAK BABESTEKO KONPROMISOARI BURUZKOA, LANBIDEKO ZUZENDARI NAGUSIAREN 2018KO ABENDUAREN 31KO EBAZPENAREN ARABERA ETA LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREKIN LANKIDETZAN (III. KAPITULUA)

Artículo 11.3.— III. kapitulu honetako diruz lagundutako orientazio-ekintzak eta -zerbitzuak hasteko epea hilabetekoa izango da, deialdiaren ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, 25.3.4 artikuluan aurreikusitako baldintzetan. Egiteko epea, berriz, 24 hilabetekoa izango da, deialdiaren ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

Artículo 13.4.5.— Jarduerari ekitean, honako hauek izan beharko dituzte: tableta grafikoko periferiko bat, zerbitzuak ematen ari direla bermatzeko sinadura digitala jasotzeko euskarri modura. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko informazio-sistemara konektaturik egon behar du, eta, horrez gain, STU -430 modeloari edo baliokideari dagokion WACOM gailuarekin bateragarria izan beharko du eta haren zehaztapen teknikoak bete behar ditu.

Artículo 13.4.6. — Jarduerari ekitean, giza baliabide propioak izatea: gutxienez kontratupeko teknikari bat, unibertsitate-ikasketak amaituta dituena, urtebetetik gorako esperientzia eta enplegurako orientazio-lanen arloan curriculum vitae egiaztatua duena, bai eta bulegotikari, Interneti eta lan-merkatuari buruzko jakintza ere.

Era berean, erakunde esleipendunak zerbitzua EAEko bi hizkuntza ofizialetan ematen dela bermatu beharko du.


En la presente *convocatoria*, las Solicitudes de Alta de Entidad, Solicitud de Alta de Gestor de Personal, el Compromiso de Protección de Datos y la Declaración de Inicio de Actividad se realizarán por vía **TELEMÁTICA** mediante la Sede Electrónica del Gobierno Vasco <https://www.euskadi.eus> .

Artículo 26 .1.- Esleitutako diru-laguntzak hiru epetan ordainduko dira:

– Esleitutako guztikoaren % 25eko aurreordainketa bat, 2019ko ordainketa-kreditutik ordainduko dena, laguntza mota bakoitzari dagokion behin betiko ebazpena argitaratu eta gero. Hori bai, erakundeek aurkeztu beharko dute jarduera ekitearen inguruko erantzukizunpeko adierazpena 4.3, 11.3 eta 18.4 artikuluetan aurreikusitako baldintzetan, eta Lanbidekon kontratatutako pertsonen Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta ematearen inguruko baldintzak identifikatu eta egiaztatu beharko dituzte.

EGOITZA ELEKTRONIKOAREN BITARTEZ AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

Dokumentazioa modu **TELEMATIKOAN** aurkeztuko da, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoen bitartez: <https://www.euskadi.eus> >>> **Nire karpeta** >>> **espedientea**>>> **JARDUERARI EKITEKO ESKABIDEA** botoia.



Honako hau da 1, 2 eta 3 puntuetarako prozesu bakar batean aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1. **Konpromisoa datuak babesteko arloan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren tratamendu-eragile gisa, elektronikoki sinatua edo eskuz sinatua eta eskaneatua.**
2. **Erakundeari alta emateko eskabidea beteta eta elektronikoki sinatua edo eskuz sinatua eta eskaneatua.**
3. **Langile-kudeatzaileari alta emateko eskabidea beteta eta elektronikoki sinatua edo eskuz sinatua eta eskaneatua.**

** Erakundearen langile-kudeatzaileari baino ez zaio sarbidea emango Lanbideren orientazio-aplikaziora, baina bakarrik deialdian zehar orientatzaileen/koordinatzaileen alta/baja informatikoak eskatzeko, "ALTEN KUDEATZAILEAREN ESKULIBURUA kontuan hartuta. Erakundearen elkarteei dagokienez, erakunde bakoitzeko langile-kudeatzaileari emango zaio sarbidea Lanbideren orientazio-aplikaziora. Erakundearen Langile-kudeatzaileari alta emateko eskabide guztiak artxibo zip konprimatu batean bildu eta aurkeztuko dira.*

Hiru dokumentu horiek atxiki eta gero, izapidea amaituko da botoi honi sakatuta:



Erakundeak bigarren kudeatzaile bati eman behar badio alta, bigarren eskabide hori DOKUMENTUAK ERANTSI botoi orokorretik egin beharko da.



Vitoria-Gasteizen, 2019ko uztailaren 9an



Sin. : Jesús María Ordóñez Orzaiz
Laneratzeko Zerbitzuko arduraduna